



# merkalan

Lanbideren enplegu eta formakuntza azoka  
Feria de empleo y formación de Lanbide

## Azoka birtuala:

2021eko azaroaren 15a eta 16a

Erakusketarientzako plataforma irekia: azaroaren 1etik aurrera

Herritarrentzako plataforma irekia: azaroaren 8tik aurrera


---

## Aurrez aurreko azoka:



2021eko azaroaren 15a eta 16a

Europa Jauregia • Vitoria-Gasteiz





**Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzako enpleguko politika aktiboak kudeatzen dituen erakunde autonomoak, Merkalan antolatzen du, euskal enpresen eta enplegu-eskatzzaileen beharrianak lortzen dituen enplegu eta prestakuntza-azoka.**



# Zer da Merkalan

Merkalan Lanbideren II. enplegu- eta prestakuntza-azoka da. Azoka honek euskal enpresen eta gure lurraldeko enplegu-eskatzaileen beharrak bildu eta batzen ditu.

Merkalan, alde batetik, beste aukera bat da hautapen-prozesuak bateratzeko, enpresei langileen kontratazioa errazteko eta beste enpresa batzuekiko lan-kidetza, sinergia eta sareak sortzeko. Eta, bestetik, babes handia da enplegua bilatu edo hobetu nahi duten herritarrentzat.

Azken batean, sektore publikoko eta pribatuko enpresen eta aukeretara heltzeko, beren enplegua hobetzeko zein enplegurako prestakuntza-eskaintza ezagutzeko interesa duten enplegu-eskatzaileen arteko harreman-puntu berri bat.



# Nori zuzenduta dago Merkalan




Kontratazio- eta prestakuntza-beharrizan espezifikoak dituzten EAEko **enpresak**.



**Prestakuntza-zentroen elkarteak**, profesionaltasun-ziurtagiriei buruzko beren prestakuntza-eskaintza eta informazioa ezagutarazi dezaten.



**Enplegua bilatu edo hobetu nahi duten herritarrak**. Azokan lan-eskaintzak kudeatuko dira eta sektore publikoko eta pribatuko langileek elkarrizketak egingo dizkiete hautagaiei, azokaren formatu birtualean zein aurrez aurreko formatuan.




# Merkalanen helburuak



**Kontaktua sustatzea** gure solaskide nagusiekin, enplegu-eskatzailleekin, azken ikasturteetako ikasleekin, enplegua nahi duten langileekin, enpresekin eta enpleguaren eta prestakuntzaren arloan lan egiten duten entitateekin.



Enplegua bilatzen ari diren herritarren eta enpresen arteko **bitartekotza bultzatzea**, enpleguari eta prestakuntzari dagokienez.





# 2021eko edizioa



Aurten, berrikuntza bezala, Merkalan azoka nagusiki birtuala den ekitaldi gisa konfiguratu da, zeinak azoka bat txertatu baitu aurrez aurreko formatuan, eta horrek, COVID-19 neurriei dagokienez % 100 segurua den ekitaldi bat egitea eta erakusketarien eta bisitarien arteko sinergiak indartzen dituen azoka irisgarriago bat sortzea ahalbidetu du.

## Azoka birtuala

Azoka birtuala 2021eko azaroaren 15ean eta 16an egingo da eta sarbide irekia izango du azaroaren 1etik abenduaren 15era arte, [www.merkalan.azokabirtuala.com](http://www.merkalan.azokabirtuala.com) plataformaren bidez.

## Aurrez aurreko azoka

2021eko azaroaren 15a eta 16a, Vitoria-Gasteizko Europa Jauregian (Begiratokia).

Orduetgia:

15. eguna: 09:30-18:00.

16. eguna: 09:30-15:00.

Merkalan Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak antolaturiko Enpleguaren Nazioarteko 4. Biltzarraren aldi berean gauzatzen da.



# Gai-arloak

- Lanbideren informaziogunea.
- Enplegu-eskaintza pribatuak eta publikoak.
- Enpresetarako zerbitzuak.
- Lanerako prestakuntzako eskaintza arautua.
- Webinarrak (workshopak).





## LANBIDEren informazio gunea

Informazio teknikoko gune nagusia, LANBIDEko langileek kudeatua. Informazioa emango du enplegu bat bilatzeko eman beharreko urratsei buruz, LANBIDEn izena emateari buruz, LANBIDEk eskaintzen dituen zerbitzuei buruz, datuak MiLanbideneten autokudeatzeari buruz eta curriculumak entregatzeko moduari buruz.



## Enplegu-eskaintza pribatuak eta publikoak

Enpresa eta erakundeen stand propioak, aurretik argitaratutako enplegu-eskaintzetan izena eman duten pertsonen **lan-elkarrizketak** egiteko, birtualak zein aurrez aurrekoak.

Halaber, EURESen bidez eta enplegu publikorako deialdien bidez nazioarteko enplegura sartzeari buruzko informazioa emango da.



## Enpresentzako zerbitzuak

LANBIDEk enpresei eta ekintzaileei ematen dizkien bitartekaritza-zerbitzuei buruzko informaziogunea: enplegu-eskaintzak kudeatzeko modua, langileak kontratatzen eta prestatzen laguntzeko programei eta lerroei buruzko informazioa, etab.



## Prestakuntza

Lanbide Heziketako elkarten, Euskal Unibertsitateen prestakuntza-eskaintza, Lanbidek eskainitako lanerako prestakuntza eta profesionaltasun-ziurtagiriena.



## Webinarrak (workshopak)

Webinar formatuko solasaldi laburrak (online): enpresa-proiektuen erakusketak, hitzaldiak, esperientzien aurkezpena, ekintzailtza eta orientazio-lantegiak, etab.







# Nola hartzen dute parte enpresek

Lehenengo baldintza da parte hartzeko eskabide bat aurkeztea, ekitaldiaren web-orrian: [www.merkalan.eus](http://www.merkalan.eus)

\*parte hartzeko baldintzak ikusi.





Merkalan 2021eko azaroaren 15ean eta 16an egingo da eta sarbide irekia izango du plataforma birtualera azaroaren 1etik abenduaren 15era arte.

Azoka, online plataforma bidez gauzatuko dena (web-orri baten antzekoa baina interaktiboa), erakusketarien eta bisitarien arteko topagunea izango da eta, bertan, 200 stand birtual jarriko dira 3 pabiloi desberdinetan.

Erakunde eta enpresa parte-hartzaile bakoitzak Enplegua edo Prestakuntza deituriko **stand birtual** bat izango du, kasuan kasuko arloaren arabera, ekitaldiak iraungo duen bi jardunaldietan zehar, eta bertatik, informazioa eskaini, lan-eskaintzak argitaratu, prestakuntza-ekintzak argitaratu, elkarrizketak egin eta ezagutzera eman ahalko du, lekualdaketarik egiteko beharrik gabe, inguru adiskidetsu eta oso irisgarri batean. Horrela, balizko hautagai askorengana iritsi ahalko da klik bakarrean.

Era berean, Gasteizko Europa Jauregian gauzatuko den Azokaren aurrez aurreko formatuan gune bat jarriko da enpresa interesdunen eskura, aurrez aurreko elkarrizketak hitzartu nahi badira (ordutegiak zehazteke).



Enpresak bitarteko hauek izango ditu eskura aurrez aurreko azokan, denak ere ekitaldiaren antolatzaileek emanak eta, beraz, doakoak:

- Moketa.
- Mahai 1 eta 2 aulki.
- Konexio elektrikoa.
- Sarerako sarbidea.
- Antolatzaileek helarazitako panela, enpresaren izena eta logoa jartzeko.
- Enpresak aurkezten dituen enplegu-aukerak agerrarazteko erakustokia.
- Esekitokia.



**OHARRAK:**

COVID-19aren salbuespenezko egoera dela eta, Merkalan Azokaren antolaketa, erakusketari zein publikoaren arreta eta sarbideari dagokienez, Europa Jauregiaren **COVID-19aren kontrako Protokoloa** betez garatu da.

# Azoka birtuala

Merkalan Azokaren plataforma birtuala publiko orokorrarentzako aktibatuko da azaroaren 8an. Aldez aurretik, azaroaren 1ean, sarbide bat gaituko zaie enpresa eta erakunde parte-hartzaileei, beren standak konfiguratu ahal ditzaten.

**Plataforma birtualak aukera emango die enpresa eta erakunde erakusketariei:**

- **STANDAREN DISEINUA PERTSONALIZATZEKO:** standak pertsonalizatzea aurrez ezarritako plantilletatik abiatuta, erakunde bakoitzaren irudiarekin bat datorren diseinua aukeratuz, edo stand bat “Ad hoc” diseinatzea.

Enpresa parte-hartzaileei plataformaren konfigurazioari buruzko prestakuntza-saio bat eskainiko zaie, bai eta erabilera-eskuliburu bat ere.

- **HAINBAT INFORMAZIO ERAKUSTEKO:** bisitariarentzako erabilgarria den edukia igotzeko, hala nola enpresaren datu korporatiboak eta informazioa (logotipoa, harremanetarako informazioa, intereseko URLak, sare sozialak), eskaturiko profilak, eskaintzak eta produktuak, beste aukera batzuen artean.

Era berean, nahi beste enplegu-eskaintza txertatu ahal dira.

Informazio hori eskuragarri egongo da bisitariarentzat azoka publikoarentzat irekita dagoen bitartean (azaroaren 8tik abenduaren 15era arte), eta denbora errealean eguneratu daiteke eta klik bakarrean. Erakunde parte-hartzaile bakoitzak 10 profil ditu eta aldi berean konektatu daitezke.

- **DESKARGAK TXERTATZEA:** bisitariarentzako interesgarriak diren dokumentuak txertatzea, Pdf, Word edo jpg formatuan deskargatu ahalko direnak.
- **BIDEOAK PARTEKATZEA:** bideo korporatiboak partekatzea Youtube edo Vimeoko esteken bidez.
- **PARTE-HARTZAILEEKIN HARREMANETAN JARTZEA TXAT BATEN BIDEZ:** harreman zuzena izatea, txat bidez, enpresaren inguruko informazio gehiago eskuratu nahi duten bisitariekin, taldeko elkarrizketen bidez, edo hautagai bakoitzarekin.
- **MAILBOX:** posta-/mezularitza-sistema honekin jakinarazpenak jasotzen jarraitu daiteke, konektatuta egon ez arren.
- **BILERAK EGITEA:** agenda bera partekatuz hitzorduek automatizatzeko; horrela, bisitarien hitzordua aukeratu eta erreserbatu ahalko dute beren lehentasunen arabera.
- **WEBCASTAK EGITEA:** zuzeneko edo aurrez grabaturiko webinarren saioak planifikatu eta kudeatzea, eskaturiko esparruak betez.
- **LEADAK KUDEATZEA:** beren standa bisitatu duten pertsona guztien datuak kontsultatu eta deskargatzea, eta horiek sailkatzea, iragaztea eta esportatzea.

# Merkalanen egoitza

## Europa Biltzar Jauregia


Gasteizko Europa Jauregia eraikin zabal, moderno, moldakor eta eroso da eta —eraberritze integral baten ostean—arkitektura jasangarriaren erreferente bilakatu da eta hainbat sari eta ziurtagiri lortu ditu, hala nola SICTED (Turismoguneetako Kalitate Turistikoaren Sistema Integrala), Passivhaus XXL ziurtagiria (Espainian eraikin bati eman zaion lehenengoa 2017an) edo LEED Gold 2016 (Leadership in Energy & Environmental Design) ziurtagiria.

Fatxada guztia estaltzen duen lorategi bertikala bere ezaugarriarik deigarriena da. Landaketarako Arabako eta Euskal Herriko berezko hainbat espezieetako 33.000 landara baino gehiago erabili dira.

Europa Biltzar Jauregiak Covid-19aren kontrako kontingentzia eta prebentzio-neurrien plan bat dauka. Pertsonen segurtasuna bermatzeko, babes-neurriak ezarri dira, sarbideei, segurtasun-distantziari, garbiketa eta desinfekzioari, higiene pertsonalari eta aireztapenari dagokienez.

### Europa Biltzar Jauregia

Gasteiz hiribidea, 85  
01009, Vitoria-Gasteiz  
+34 945 161 520



## TRANBIA

“Europa” egoitzatik hurbilen dagoen tranbia-geltokia, justu Biltzar Jauregiaren aurrean dagoena. Tranbia 15 minutuan behin igarotzen da eta hiriaren erdigunea periferietako auzoekin lotzen du modu azkar eta eraginkorrean.

[Informazio gehiago](#)



## HIRI-AUTOBUSA

“Europa” egoitzatik hurbilen dagoen autobus-geltokia, honako hiri-linea hauekin: L1, L5 eta L8. VGBusen APParen bidez edo markesina bakoitzeko QR kodeak irakurrita, geltoki bakoitzeko hurrengo heldueren inguruko informazioa erakusten da.

[Informazio gehiago](#)

# Garraiobideak



## BIZIKLETA

Vitoria-Gasteiz bizikletaren hiria da. Gune lau batean dagoenez (Alde Zaharra izan ezik, muino batean dagoena), hiria toki ezin hobea da mugitzeko eta bizikletan ibilbideak egiteko.

[Informazio gehiago](#)



## IBILGAILU PRIBATUA

Autoz sartzen bada, Europa Jauregiak parking bat dauka (Bolivia, z/g; 01009 Vitoria-Gasteiz). Parking hori erabiltzeko beharrezkoa da Pverde aplikazioa izatea, zeina [Google Play](#) edo [App Store](#) bidez deskargatu ahal baita.

Hurbil geratzen den beste parking bat Autobus Geltokiko Parkinga da.

# LANBIDE- EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN MERKALAN 2021<sup>EKO</sup> ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA AZOKAN ERAKUSKETARI GISA PARTE HARTZEKO ARAUDI ESPEZIFIKOA

1. LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren Merkalan Enplegu eta Prestakuntza Azokan erakusle izateko (Gasteizko Europa Jauregian, 2021eko azaroaren 15ean eta 16an), aldez aurretik eredu ofizialaren bidez parte hartzeko eskaera aurkeztu beharko da ekitaldiaren zuzendaritzan, eta hark onartu egin beharko du eskaera. Parte hartzeko eskaera [www.merkalan.eus](http://www.merkalan.eus) web-orrian dago, eta hura aurkezten denean ekitaldian parte hartzeari buruzko araudi orokorra onartzen da, bai eta ekitaldi honen araudi espezifikoa ere.
2. Parte hartzeko modalitatea erakusmahai birtuala da. Horretarako, enpresek, parte hartzeko eskaerarekin batera, zerrenda aurkeztu beharko dute eta bertan islatuko da, batetik, lan-eskaintza zehatzak, eta, bestetik, eskaintza bakoitzeko lanpostuaren xehetasunak. Stand birtualaren bidez, enpresek enpresa-proiektua aurkeztuko dute gehi zein langile profila behar duten. (Zer egiten dugu? Zer proiektu ditugu? Zer behar dugu? Zer eskaintzen dugu?) Horretaz gain, beren lantaldean gehien eskatzen diren gaitasunei buruzko informazioa ere eman ahal izango dute, gehi enplegua bilatzeko aholkuak, beren antolaketan lanpostu desberdinak betetzeko beharrezko prestakuntza...
3. Parte hartzeak ez du kosturik ekarriko, eta ez da fidantzarik jarri beharko.
4. Aurreko paragrafoetan ezarritakoa eragotzi gabe, ekitaldiaren zuzendaritzak aukera izango du beste entitate publiko edo pribatu batzuk gonbidatzeko, baldin eta entitate horien parte-hartzea eta presentzia egokia bada ekitaldi horretarako ezarritako gai eta helburuen arabera.
5. Erakusketariak Azoka birtualaren pabiloietako batean erreserbatu gune birtual bat izango du ekitaldiak dirauen jardunaldietan zehar. (Azaroaren 1etik abenduaren 15era arte zabalik).
6. Gune birtualak esleitzea ekitaldiaren zuzendaritzaren eskumen eksklusiboa izango da. Espazioak esleitzean, ahal den neurrian, kontuan hartuko dira parte hartzen duten enpresen sektore ekonomikoak, eskaera-data, espazioen arteko harmonia, eta ekitaldia hobetzen laguntzen duen beste edozein zirkunstantzia. Horiek horrela, tokia esleitzeko, oinarritzat hartuko dira eskatzaileak parte hartzeko eskabidean emandako datuak eta erregistro publikoetan eta LANBIDEren erregistroetan daudenak. Ekitaldiaren zuzendaritzak ahalmena izango du enpresari esleitutako kokalekua eta baliabideak aldatzeko, salbuespenezko inguruabarrek hala eskatzen badute, eta erakusketariak kalte-ordainerako eskubiderik izan gabe.
7. Erakusketari bakoitzari esleitutako standa, batez ere, erakundea aurkezteko, lan-eskaintzak eta txatak zabaltzeko, erakundeak hautagaitzat jotzen dituen pertsonekin lan-elkarrizketak egiteko eta eskaintako lanpostuei buruzko interesa duten ekitaldi birtualean aurrez hitzordurik izan gabe parte hartzen duten pertsonen laguntzeko izango da. Aurrez, plataforma birtualaren bidez argitaratuko dira, azaroaren 1etik abenduaren 15era bitartean.
8. Enpresak bitarteko hauek izango ditu eskura azokan, denak ere antolatzaileek emanak eta, beraz, doakoak:
  - Erakusketariarentzako gune bat plataforma birtualean.
  - Prestakuntza plataforman, erakusketariaren diseinu, sorkuntza eta kudeaketarako.
  - Enplegu-eskaintzen argitaratzea.
  - Agenda aurrez hautaturiko hautagaiekin.
  - Arreta ekitaldiaren aurretik edo horretan zehar sor daitezkeen zalantzei.



Euskalduna Jauregiaren COVID-19 prebentzio-protokoloa aplikatuko da, alegia: gainazalen garbiketa eta desinfekzioa, edukieraren etengabeko kontrola eta bertaratuko direnen identifikazioa, barrutian egongo diren ordu-tarteak zehaztuta.

9. Erakusketariaren logoa txertatuko da plataforman eta ekitaldiaren web espezifikoa erakunde parte-hartzaile gisa.
10. Ekitaldiaren zuzendaritzak parte hartzeko eskaera onartzen badio, erakusketariak osorik eta atzera egiteko aukerarik gabe onartu beharko ditu betebeharrak hauek: a. Esleitutako stand birtualari edukia pertsonalizatu eta gehitzea, bai eta arreta ematea ere hitzartutako iraupen osoan (gutxieneko parte-hartzeak bermatu beharko du hitzartutako elkarrizketak burutzea, eta azokak irauten duen denboraren % 50). b. Ekitaldiari lotuak dauden jarduerak egitea. c. Ezin dira hirugarren bati eskubide hauek utzi, ez partzialki ezta osorik ere ez; salbu eta ekitaldiaren zuzendaritzak alde aurretiko idatzizko baimena ematen badu.
11. Erakusketariak aurreko artikuluan adierazten diren betebeharrak betetzen ez baditu, edo emandako informazioa faltsua edo okerra bada, esleitutako edo okupatu gabeko lekuaren gaineko eskubideak galduko ditu, eta leku hori ekitaldiaren zuzendaritzaren esku geratuko da. Zuzendaritzak beste eskatzaile batzuei eskaini ahal izango die toki hori.
12. Era berean, debekatuta egongo da standaren mugetatik kanpo egiten den publizitate- eta sustapen-ekintza oro, salbu eta entitate antolatzaileak berariaz onartzen badu.
13. Euskalduna Jauregiari edo ekitaldiaren zuzendaritzari egotzi ezin zaion zernahi kausa dela-eta ekitaldiaren deialdia bertan behera utzi behar bada, edo erakusketa-azalera murriztu behar bada, edo azoka-jarduera aldi baterako edo behin betiko, partzialki edo osorik eteten bada, edo ospakizunaren data aldatzen bada, erakusketariak ez dute kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
14. Jakinarazten dizugu ezen, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (2016/679 EB Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betez, enplegu-azoka egitearen ondorioz bildutako datu pertsonalak LANBIDEK tratatuko dituela, lege eman zaizkion botere publikoak baliatuz.

LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuak soilik bilduko ditu beharrezkoak diren eta gehiegizkoak ez diren datuak, bildu ziren helburuak betetzeko, eta betiere LANBIDEri legez esleitu zaizkion eskumenak betez.

Era berean, jakinarazten dizugu LANBIDEk, eman dizkiguzun datu pertsonalen segurtasunari eta konfidentzialtasunari eusteko, urtarri-laren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotzen diren segurtasun-neurriak ezarriko dituela (dekretu horren bidez, Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen da).

Gure webgunean kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: [http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/información/condiciones\\_de\\_uso\\_y\\_politica\\_de\\_privacidad/](http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/información/condiciones_de_uso_y_politica_de_privacidad/)

15. Erakusketariak, ekitaldian izena emanda, BAIMENA EMATEN DIO LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuari, azaroaren 15ean eta 16an ekitaldiaren inguruan egiten diren eta bera ager daitekeen argazki- edo bideo-irudiak hartzeko eta erabiltzeko, 1982ko maiatzaren 5eko 1/1982 Legean ezarritako eran. Egindako grabazio edo argazkien erabileraren helburu bakarria ekitaldia zabaltzea eta sustatzea izango da. Halaber, baimena ematen zaio LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuari irudi horiek edozein komunikabideren bidez zabaltzeko, erreproduzitzeko eta banatzeko, arestian esandako helburuarekin eta betiere lege-arau haue-tan xedatutakoa errespetatuz: 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen, eta 1/1982 Lege Organikoa, Ohorezko, Intimitate eta Norberaren Eskubideari buruzkoa. Baimen hau doakoa da eta ez du inolako denbora-eperik, eta ez dago eremu geografiko jakin batera mugatuta ere, legez xedatutakora salbu. Datu pertsonalak babesteko araudia betez, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuak jakinarazten du inola ere ez dizkiela hirugarren batzuei lagako baimen honen xederako lortu dituen irudiak, aipatutakoaz bestelako helburu baterako, legezko betebeharra izan ezean.

Emandako baimena kentzeko, idatzizko komunikazioa bidal diezaiokezu LANBIDEri Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz.

# merkalan

Lanbideren enplegu eta formakuntza azoka  
Feria de empleo y formación de Lanbide

## Harremanetarako


Enpresa eta erakundeentzako:

Araba eta Gipuzkoa: 943 430 312

Bizkaia: 944 069 626

[feriamerkalan@lanbide.eus](mailto:feriamerkalan@lanbide.eus)

[www.merkalan.eus](http://www.merkalan.eus)



**Lanbide**

Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

LAN ETA ENPLEGU  
SAILA  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y EMPLEO



**EUROPAR BATASUNA**  
**UNIÓN EUROPEA**

Europako Gizarte Funtza  
Fondo Social Europeo